



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko maiatzaren 13a

62. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzekoa. Nafarroako Alderdi Sozialista eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (2. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Murchanten arreta medikorako bost moduluren salbuespenezko ordaintetari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (6. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren Kontingentzia Plana, COVID-19aren prebentziorakoa (7. or.).
- Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusi José Luis Ezquerro Royo jauna kargutik kentzea (10. or.).
- José Contreras López jauna Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusi izendatzea (10. or.).
- Talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen 2021eko ekitaldiko urteko kontuak (11. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzeko Foru Lege proposamena aurkeztu dute, eta presako prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute (10-22/PRO-00011).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Aipatu foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proposamena,  
Nafarroako errepideetarako  
erabilera-kanona arautzekoa****HITZAURREA**

Ekainaren 17ko 1999/62/EE Zuzentarauak, salgai-garraioko ibilgailu astunei zenbait azpiegitu-

ra erabiltzeagatik karga-tasak aplikatzekoak, adierazten duen bezala, lehiaren alorreko europar politikak asmozat dauka estatu kideetako garraioen presen arteko lehiako distortsioak ezabatzea, kobrantza-sistemak harmonizatzeko eta azpiegituraren kostua garraiolariei egozteko bide ekitatiboak ezarriz, mugak ezarriz guztizko pisu zamadun jakin bat gainditzen duten ibilgailu industrialetara zerga-sistema nazionalak egokitzeari, ezarri beharreko karga-tasak ingurumen- eta errepide-eraginarekin arabera bereiziz, bide desberdinak erabiltzeagatik tasa-ezarpena onarturik, non eta tasak ez diren diskriminatzaileak, ez duten gehiegizko formalitateak erakartzen eta ez duten eragozpenik sortzen, eta erraztasunak ezarriz pagamendua edozein unetan eta ordainbitarteko desberdinen bidez egin ahal izateko.

Xedatzen du tarifak kasuko azpiegitura-erabileraren iraupenaren arabera beharko direla kalkulatu, eta ibilgailuek eragindako kostuei erreparatuta bereziak izan.

Aipatu zuzentarauak eginiko araupetzearen xede dira, besteak beste, aipatzen dituen ibilgailuentzat ezarritako azpiegitura-erabileragatik tasak, 7. artikulutik aurrera arautzen dituenak. Karga-tasaren ezartze horrek baldintzatu egiten du Batzordeari eginiko aurretiazko kontsulta.

Europar Batasuneko doktrinari jarraikiz, azpiegitura-erabileragatik tasak ez du tributu-izaerarik; halere, aitortzen du egokia dela garraio-merkatuko lehiaren distortsioak ezabatzeko, batetik; eta, bestetik, ingurumena babesteko eta garraio-sareen garapen orekaturako funtsak lortzeko. Horrenbestez, aipagai duguna azpiegitura jakin batzuk erabiltzetik eskuratzen den erabil-eskubide bat, zeinaren zenbatekoak zerikusia izan behar baitu kasuko bide-sarea eraiki, ustiatu eta garatzearen kostuekin. "Nork erabili, horrek pagatu" printzipioaren ildotik, tarifak bere egitekoa beteko du kostu horiek erabiltzaileei jasanaraziz, eta bidekontserbazioaren eta -kudeaketaren kostuak berreskuratu eta berrinbertitzea ahalbidetuko du.

LORAFNA-Nafarroako Foru Eraentza Berreza-ri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak ezartzen du Nafarroari dagokiola, bere foru araubidea dela-eta, ibilbidea osoki Nafarroako lurraldean daukaten errepide eta bideen gaineko eskumen eskusiboa.

Nafarroak etengabe egikaritu ditu bere eskumen historikoak bide eta errepideen eraikitze, finantzatze eta mantentzearen alorrean, eta historian zeharreko jardun hori jasota agertzen da Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen zioen azalpenean. Aipatu eskubide historikoek Espainiako Konstituzio indarduneko lehen xedapen gehigarriaren babesa dute.

Nafarroako Errepideei buruzko 5/2007 Foru Legeak esparru juridiko berekia antolatzen du, are bide-jabari publikoaren gaineko jaduketen eta ustiapenaren finantzaketarako, kalitatezko bidezertitu publikoa bermatzeko baliabideak bideratuz, 25.1 e) artikuluan xedatuz errepide-erabilerrako kanon bat ezarri ahal izatea, zeina 27. artikulua aitortzen baitu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aldeko baliabide ekonomiko gisa, bide-jabari publikoa erabiltzeagatikoa. Kasu hori berezizat sailkatzen du 30. artikulua.

Arau orokor gisa, eta aipaturiko azken manuari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zuzenean kudeatu eta ustiaturiko du bide-jabari publikoa, ahalmena badauka ere sozietate publiko bat eratzeke, xedetzat izanen duena Nafarroako Errepide Sarean sartuta dauden errepideen eraikitze, mantentze eta ustiapena kudeatzea, bai eta horien eremu funtzionalak eta zerbitzu-eremuak.

Esparru juridiko horretan kokatzen da arau berri hau.

### **1. artikulua.** Sortzea.

1. Errepide-erabileraren gaineko kanona Nafarroako Ogasun Publikoaren baliabide gisa sortzen da, aplikazio-xedetzat duena Nafarroako Edukiera Handiko Bideen Sareko zenbait azpiegituraren erabilera. Horrela bildutako dirua bideratuko da foru lege honek jasotako helburuak betetzera ez beste ezertara.

2. Erabilera-kanonaren ordainarazpena eta kudeaketa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eginen ditu, dela berak zuzenean, dela berak xede horretarako eratzen duen sozietate publiko baten bitartez, eta kanon horren diru-bilketak erabiliko da bide-mantentze eta ustiapenerako ekintzak finantzatzeko, bai eta azpiegitura berriak eraiki eta horiei loturiko zerbitzuak ezartzeko ere, zeinak, kasua bada, Nafarroako Errepide Sareari

atxikiko baitzaizkio. Kanona atxikia daukan bidea bera mantentzetik eratorritako beharrianak ase direlarik, zilegi izanen da diru-sarreraren parte bat bideratzea ingurumenaren babeserako neurrietara edo garraio-sareen sustapen orekaturako neurriak aztertu eta ezartzera.

3. Sozietate publiko bat eratuko balitz, horretara bideratuko dira bai borondatezko epean kudeaturiko kanona, bai epe exekutiboan lorturikoa.

2. artikulua. Kanona atxikia duten bideak eta bide-zatiak.

Erabileragatiko kanona atxikia daukaten bideak eta bide-zatiak hauek dira:

- a) A-1 Autobia, Iparraldeko Autobia: bide osoa.
- b) A-10 Autobia, Sakanako Autobia: bide osoa.
- c) A-15 Autobia, Leitzarango Autobia: bide osoa.
- d) A-68 Autobia, Ebroko Autobia: bide osoa.
- e) N-121-A prestazio handiko errepidea, Iruña-Behobia: bide osoa.

### **3. artikulua.** Sortzapena eta ordainketa.

1. Erabilera-kanonaren sortzapena eta ordainketa eginen dira kanon hori atxikita daukan bidera edo bide-zatira sartzeko unean.

2. Erabilera-kanona ordaintzera behartuta daude kanon hori atxikita daukaten bideetatik zirkulatzen duten ibilgailu astunen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak. Halako ibilgailutzat joko dira motordun ibilgailuak edo ibilgailu artikulatuen multzoak, gehieneko pisu baimendua 3,5 tona baino handiagoa izanda errepidezko salgai-garraiorako baizik ez direnak edo horretarako baizik erabiltzen ez direnak.

Kanona ordaintzetik salbuetsita daude administrazio publikoaren ibilgailuak edo azpiegituraren kontserbatze- eta mantentze-lanen esleipen-hartzaile diren enpresenak, bai eta larrialdi eta istripuetakoak.

3. Ibilgailuen detekzio, identifikazio eta kanon-egozpenerako, iragaitza askeko sistema ireki bat ezarriko da, ibilgailu-gerarazpenik gabekoa.

4. Kanona ordaintzeko, erabiltzaileek baliabide teknikoak eduki beharko dituzte, baldintza operati- boetan erabilera ahalbidetuko dutenak; edo bestela halako informazioa eman beharko dute non modua emanen baitu matrikula-zenbakia ordainbide bati lotzeko, bide-administrazioak argitaratutako web informazioari jarraikiz.

Zehazki, honako ordainbide hauek onartzen dira:

a) TAG gailua.

b) Erregistro telematikoa, bide-administrazioak paratzen duen webgunearen nahiz gara daitezkeen beste sistema telematiko batzuen bitartekoa. Banku-txartela edo erregistro telematikoak etorkizunean onartzen dituen bestelako ordainbide batzuk zehaztuko dira.

#### 4. artikulua. Kanonaren zenbatekoa.

Erabilera-kanonaren zenbatekoa Nafarroako errepedeen alorrean eskudun den departamentuak zehaztuko eta eguneratuko du, honako irizpide hauek kontuan hartuz:

a) Errepidea erabiltzean eginiko ibilbidearen luzera.

b) Azpiegituraren higadura.

c) Finantza-askitasuna, halakoa non, foru lege honetan adierazitako beste baliabide batzuekin batera, bertan aurreikusitako helburuak lortu ahal izanen baitira.

d) Erabiltzaileentzako tratu-berdintasuna, erabilera-mailaren arabera.

#### 5. artikulua. Kanona ez ordaintzea.

1. Bide-azpiegitura erabiltzen den unean ez bada erabilera-kanona ordaintzen, kanona kudeatzen duen entitateak ordain-eskea aurkeztuko die interesdunari eta bide-administrazioari, sozietate publikoa izanez gero, eta kudeaketa-errekargu bat gehituko dio.

Errekargu hori zorretan utzitako kanonaren % 20koa izanen da.

Desadostasuna egonez gero, interesdunak aurkako jarrera bide-administrazioari aurkeztuko dio, eta administrazio horrek ebatziko du auzia.

2. Aurkako jarrerarik aurkeztu ez eta erabilera-kanona eta errekargua ez badira ordaintzen interesdunari jakinarazpena egin eta bi hilabeteko epearen barrenean, kanonaren ordainarazpenaz arduratzen den kudeatze-entitateak salaketa aurkeztuko dio bide-administrazioari, zehapen-espediente hasi dezan eta ordainkizun den zorra gehi ordaindu gabeko kudeatze-errekargua eska ditzan bidezkoak diren diru-bilketako prozedurak erabiliz, premiamendu-bidea barne.

3. Frogabide gisa, zilegi izanen da edozein sistema edo bitarteko tekniko, mekaniko edo irudigintzakoa erabiltzea, azpiegituran paratutakoa, ibilgailuak argi eta garbi identifikatuko dituena. Irudi

hori frogabidetzat hartuko da zehapen-prozeduran.

4. Kanonaren kudeaketa eta likidazioaren inguruan bide-administrazioak jaulkitako ebazpenen aurka, interesdunek administrazio-errekurtsioa aurkeztu ahalko dute, administrazio-prozedura erki-dearen arauari jarraikiz.

Diru-bilketako egintzak Nafarroako tributuaudi orokorrari jarraikiz aurkatu ahalko dira.

#### 6. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua.

1. Erabilera-kanonaren kudeaketan datu pertsonalen tratamendua eginen da.

2. Tratamenduaren xedea da kanona ordaintzera beharturiko ibilgailuak hautatu eta identifikatzea; eta, zehazki, kanona kobratzeko, fakturak jaulkitzeko eta ordaindugabeak kudeatzeko prozesuak eta arau-haustearen ondorioak exekutatzeko; egin den kudeaketarekin bat ez etortzeagatik, desadostasunagatik edo errakuntzagatik erreklamazioak tramitatu eta ebaztea, bai eta errepidea darabilten ibilgailu salbuesiak kanpo uztea ere.

Datu pertsonal beharrezkoak dira detekzio-sistemaren atariak zeharkatzen dituen ibilgailuaren matrikularen irudia; atxikitako ordainbidea; igaroaldiaren eguna eta ordua, eta ibilgailuaren titular den pertsonaren identifikazioa; kudeaketarako eta erabilera-kanonaren ordainketarako sistemako alta edo erregistratzea; halaber, informazioaren titular diren pertsonak eskatzen dituzten fakturak jaulkitzeko beharrezkoak diren datuak.

Kasua bada, zilegi izanen da datu pertsonalez osaturik ez dagoen informazio gehigarria biltzea, hala nola matrikulazio-herrialdea, ibilgailuaren marka eta modeloa, horren kategoria eta fitxa teknikoa.

3. Datuak ez dira erabiliko aurreikusitakoez bestelako helburuetarako, eta ez zaizkie hirugarrenei komunikatuko ez eta eskuragarri jarriko ere, salbu eta zuzenbidez bete beharrekota den arau bati jarraikiz edo zerbitzuarekin zerikusia duten zereginetarako.

Azpiegituraren erabilerari buruzko estatistikak egiteko, ezabatu eginen da jada adierazitako helburuetarako bildu den edozein informazio pertsonal.

4. Datu pertsonalak gordeko dira kanon-kobraketa egiteko behar-beharrezkoa den denboraz baino ez, eta prebentzio gisa, ordain-betebeharra sortzen den egunetik aurrerako urtebetez, egon litezkeen erreklamazioei erantzutearren. Une horretatik aurrera, blokeo-egoeran egonen dira,

zuzenbidez zilegi diren akzio administratibo edo judizialen preskripzio-epeak diraeino.

Ordainketa-betebeharrik gabeko ibilgailuei buruzko datuak aldi baterako tratatuak izanen dira, ordain-betebeharrik ez dagoela ondorioztatzeko behar-beharrezkoa den epeak diraeino baizik ez.

5. Artikulu honetan deskribaturiko tratamenduen arduraduna errepide-alorrean eskudun den Nafarroako Gobernuako departamentua da, ezertan galarazi gabe datu-tratamenduaren arduradun izatea horretarako eratzten duen sozietate publikoa, zeinari baitagokio botere publikoen egikaritzea, apirilaren 27ko 2016/679/EB Datu Babesari buruzko Europar Erregelamenduko 6.1 e) artikuluan aipatua.

#### **Lehen xedapen gehigarria.**

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio erabilera-kanona duten Nafarroako Errepide Sareko bideen eta bide-zatien zerrenda aldatzeko, bal-

din eta erabileragatiko ordainketatik salbuetsita egon diren edukiera handiko bideak badira, bai eta kanon hori bertan behera uzteko ere.

Nafarroako Gobernuari halaber dagokio erabilera-kanona kobratzen hasteko data zehaztea, 2. artikulua aipaturiko bide guztiei edo horietako batzuei buruz. Data hori ezin izanen da izan 2023ko abenduaren 31 baino geroagokoa.

#### **Bigarren xedapen gehigarria.**

Aldatu egiten da Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen 73.1 artikulua, apartatu berri bat gehituz:

«c) Ez ordaintzea zenbait bide-azpiegituraren erabilera-kanona edo kudeaketa-errekargua».

#### **Azken xedapena.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Murchanten arreta medikorako bost moduluren salbuespeneko ordainketari buruzkoa.***DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera, Murchanten arreta medikorako bost moduluren salbuespeneko ordainketari buruzkoa (10-22/PES-00156).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2022ko otsailetik Murchanten medikuen kupo erdia produktibitatearen ordainketaren bidez betetzen ari da. Kupo hori ordeztzeko/betetzeko konponbidea Tuterako Osasun Barrutiko Oinarrizko Laguntzako arduradunaren erabakiz gauzatu zen, eta ez Osasunbideko kudeatzailearen 10/2021 Jarraibideak jasotzen duenarekin bat, 4.3 apartatuan honela baitio: "Salbuespenez, Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldearen zentroko zuzendaritzaren ustez ezinbestekoa denean lanaldia osoa ordezte (7 ordu eta 20 minutu) 5 modu-

lu ordainduko dira". Kasu honetan oinarrizko eskualdeko zuzendaritzak laguntzarako beste konponbide bat proposatu zuen, ezarri nahi izan ez zena. Oraingo konponbideak dakar 2022ko otsailaren 1etik 5 modulu ordaintzea laguntza-estalduragatik eta zentroko zuzendaritzaren justifikaziorik gabe.

Bost modulu dira arreta ematea 15 hitzordu presentzialetan eta ez presentzialak (telefonozkoak) edo gisakoak diren beste 15etan. Murchanteko kupo erdia egiten denez, garatu beharreko jardueran izanen litzateke 7,5 kontsulta presentzial eta ez presentzialak (telefonozkoak) edo gisakoak diren beste 7,5. Eskuratu dugun informazioaren arabera, portzentaje oso handian ez da bete jarduerari, eguneko 15 kontsultarena.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

- Arreta medikorako bost moduluren salbuespenez ordaintzeko beharrezkoa da osasun-zentroko zuzendaritzak ezinbestekotzat jotzea; Murchanteko kasuan zentroko zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen ez zuenez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zein arduradunek ezarri zuen konponbide hori?

- Hileko zer kostu ari da sortzen Murchanteko kupo erdiaren medikuntzako jarduerari betetzeko modu hori? Zer kostu sortuko zen zentroko zuzendaritzaren proposamena erabili izan balitz?

- Otsailean, martxoan eta apirilean garatutako jarduerari, astearen arabera eta hitzordu presentzial zein ez presentzialaren arabera xehakaturik.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren Kontingentzia Plana, COVID-19aren prebentziorakoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Aintzat harturik Nafarroako Foru Komunitateko egoera epidemiologikoa, eta ikusirik Nafarroako Gobernu Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak Nafarroako Parlamentuaren Kontingentzia Plan indardunari, COVID-19aren Prebentziorakoari, egindako ekarpenak, hauxe ERABAKI DA, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluekin bat:

**1.** Onestea Nafarroako Parlamentuaren COVID-19aren Prebentziorako Kontingentzia Plana, erantsita doana.

**2.** Adieraztea jakitun dela Nafarroako Gobernu Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak egindako ekarpenez.

**3.** Zerbitziburuei agintzea behar dena xeda dezaten kontingentzia-planean biltzen diren gomendioak eta prebentzio-neurriak betetzeko.

**4.** Erabaki hau foru parlamentariei eta Legebiltzarreko langile guztiei eta bertako Foruzaingolari helaraztea.

**5.** Erabaki hau jakinaraztea Nafarroako Gobernuari eta horren Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari.

**6.** Agintzea erabaki hau eta kontingentzia-plana Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Nafarroako Parlamentuaren Kontingentzia Plana, COVID-19aren prebentziorakoa**

**Lehenena.-** Bilera parlamentarioak nola egin.

1. Parlamentuko organoek zilegi dute bilkura presentzialak, ez-presentzialak nahiz mistoak (presentziala eta bideokonferentziatzkoa) egitea.

2. Parlamentuko Mahaiari dagokio, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, osoko bilkurak eta batzordeen bilkurak nola eginen diren erabakitzea.

3. Mahaiak eta Eledunen Batzarrak bilkura ez-presentzialak edo mistoak egiten ahalko dituzte, hala erabakitzen badute.

**Bigarrena.-** Osoko Bilkuraren, batzordeen eta ponentzien bilerak

1. Deitutako osoko bilkuren, batzordeen eta ponentzien bilkurak Osoko Bilkuren aretoan eta batzordeen eta ponentzien aretoetan eginen dira, hurrenez hurren, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari jarraikiz antolatuko dira.

2. Salbuespen gisa, legebiltzarkideak bideokonferentziaz bertaratzen ahalko dira, COVID-19arekin zerikusia duten arrazoiengatik, behar bezalako frogabideak jasotzen dituen eska-bidea Parlamentuko Mahaiari egin ondoren. Bilkura horietan, bozketa publikoa eginen da, banan-banako deiaren bitartezkoa, Erregelamenduko 101. artikulua ezartzen duenari jarraikiz.

Bat-bateko matxura tekniko bat gertatuz gero, parlamentari bati eragotzi egiten diona bideokonferentziaz parte hartzea edo segimendua, eztabaida eta bozketa bermatzeko egokiak diren bestelako sistema teknikoen bidez parte hartzea, bilkura eten eginen da, non eta kasuko parlamentariak ez duen modu fede-emailean adierazten baimena ematen duela bilkurak aurre-jarrai dezan.

3. Era berean, zilegi izanen dute bideokonferentziaz parte hartzea, COVID-19arekin zerikusia duten arrazoiengatik eta behar bezalako frogabideak jasotzen dituen eskabidea Parlamentuko Mahaiari egin ondoren, kontseilariak, haien laguntzaileak eta bilkura parlamentarioetara joaten direnak.

4. Mahaiak ebatziko ditu 2. eta 3. puntuetan aipatzen diren bertaratze telematikorako eskaerak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren.

**Hirugarrena.-** Maskararen erabilera.

Maskara erabiltzeari dagokionez, eginen da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Eledunen Batzarrari entzun ondoren Nafarroako Foru Komunitateko egoera epidemiologikoa eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak emandako gomendioak kontuan harturik erabakitzen duena.

**Laugarrena.-** Parlamentuz kanpoko jarduerak.

1. Mahaiak erabakitzen dituen parlamentuz kanpoko jarduerari berrekinen zaie. Betiere bermatu beharko da Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezartzen dituen higie- eta segurtasun-neurriak betetzen direla.

2. Osoko Bilkuretara gonbidaturiko publikoaren sarbideari buruz honako hau aintzat hartu beharko da:

– Jendea bilkura-aretoa joan ahal izateko gonbidatu-txartelen banaketa eginen da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2019ko uztailaren 29ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz.

– Gonbidatuak behartuta egonen dira Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezartzen dituen higie- eta segurtasun-neurriak betetzera.

**Bosgarrena.-** Eraikinerako eta kafetegirako sarbidea.

Parlamentuaren egoitzara sartzeko, bertakoak ez diren pertsonak bete egin beharko dituzte aplikatzekoak diren osasun-arauak, esku-higieena behin eta berriro zaindu beharko dute, eta sarbide publikokoak edo publikoa artatzekoak diren barne-espazioetan ezartzen diren bestelako arauak ere bete beharko dituzte.

Osoko bilkurak daudenean eta kafetegi-zerbitzua dagoenean, Parlamentuko langileek emandako jarraibideak bete beharko dira. Aretoak behar bezala egurastu eta aireberritu beharko dira.

**Seigarrena.-** Hedabideak.

1. Prentsako, irratiko, telebistako eta behar bezalako frogagiria duten gainerako komunikabideetako kazetariari baimena ematen zaie prentsurrekoetan, parlamentu-bilkuretan eta beste

edozein ekitaldi instituzional edo jarduera parlamentariotan egoteko.

2. Prentsurrekoak presentzialki edo bideokonferentzia bidez eginen dira.

Hedabideak fisikoki bertaratuta eginak diren prentsurrekoetan bermatu eginen da unean-unean indarra duten segurtasun-neurriak betetzen direla.

3. Osoko bilkuretan edo batzordeen bilkuretan, kazetariak hemizikloko eta batzorde geletako prentsa-kabinetan eta -guneetan kokatu beharko dira, eta Legebiltzarreko langileek emandako jarraibideak bete beharko dituzte.

4. Hedabide bertaratuek osasun-agintaritzaren gomendioak bete beharko dituzte; bereziki, esku-garbiketara. Halaber, Legebiltzarreko zerbitzuek ematen dituztenak ere, kasua bada.

**Zazpigarrena.-** Babes-neurri orokorrak.

1. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak proposatuta eta Parlamentuko Segurtasun eta Osasun Batzordeari entzun ondoren Mahaiak erabakitzen dituen babes-neurri orokorrak aplikatuko dira COVID-19arekin kutsatzeko arriskuari aurre egiteko.

2. Arau hauetan ezarritako prebentzio- eta higie-neurriak hartuko dira kontuan:

- Martxoaren 29ko 2/2021 Legea, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteei buruzkoa.

- 35/2021 Foru Agindua, irailaren 29koa, Osasuneko kontseilariarena, zeinaren bidez indarririk gabe uzten baitira COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoa dela-eta hartu eta indarrean diren berariazko neurrien ondoriozko murrizketak.

3. Posible den heinean, pertsonen arteko segurtasun-distantzia gorde beharko da, metro eta erdikoa, gutxienez.

Maskara-erabilerari dagokionez, aplikatu beharko dira COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteei buruzko martxoaren 29ko 2/2021 Legea, eta apirilaren 19ko 286/2022 Errege Dekretua.

4. Instalazioak aldizka egurastuko dira.

Astero CO<sub>2</sub> neurketak eginen dira, gela desberdinetako airearen kalitatea neurtzeko. Emaizta 800 ppm-tik gorakoa bada, neurriak hartuko dira.



Neurri horiek izaten ahalko dira egurastearen areagotzea edo edukiera murriztea.

**Zortzigarrena.-** Prebentzio-neurriak lan presentziala egiteko.

Langile guztien lan presentziala eginen da errespetatuz une bakoitzean aplikatu beharrekoak diren prebentzio-neurriak, lan-ordutegiak eta espazioak, men eginez kutsatzen saiheste aldera osasun-agintaritzak pertsonen arteko aldentze-distantziak direla-eta jaulkitako xedapenei, bai eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak lanpostuen arriskuen ebaluaziorako prestatutako fitxetan ezarritako gainerako prebentzio-neurri zuzentzaileei ere.

**Bederatzigarrena.-** Ordutegi-malgutasuna, lan-txandean egokitzapena eta ezinbesteko eginbeharragatiko baimena.

1. Ezertan galarazi gabe lanaldi-araubide arruntaren betetzea, Parlamentuko langileek, 14 urte baino gutxiagoko seme-alabak edo bigarren gradurainoko odol- nahiz ezkontza-ahaidetasuneko pertsona zaharrak, mendekoak edo desgaituak zaintze aldera, haiek etxebizitzan beraiekin bizi badira eta ikastetxe zein zahar-etxeen ixtearen eragina pairatu badute, zilegi izanen dute beharrezkoa den ordutegi-malgutasunaz baliatzea bizitza pertsonala eta lanekoa bateragarri egiteko, bai eta lan-txandean egokitzapenaz baliatzea ere, lanpostuak horretarako modua eman ez gero, aurretiaz Idazkaritza Nagusiari eskaera eginda eta haren baimena lortuta, kasuko zerbitzuburuak txostena egin ondoren.

2. Aipaturiko kasuetan, langileek aukeratzen ahalko dute beren lanaldia 07:30etik 20:30erako denbora-tartearen barrenean betetzea, astelehenetik ostiralera.

3. Kasu horietan, ohiko zerbitzua telelanaren, ordutegi-malgutasunaren edo lan-txandaren egokitzapenaren bidez eman ezin denean, langileek ezinbesteko betebeharrarako baimena hartzen ahalko dute, aldeztu aurretik eskatuta eta Idazkaritza Nagusiak baimena emanda, kasuko zerbitzuburuaren txostenarekin.

**Hamargarrena.-** COVID-19arekiko zaugarriak diren langileei aplikatu beharreko babes-neurriak.

Zaugarri gisa kalifikatutako langileei gainontzeko langileei aplikatutako prebentzio-neurri orokor berberak aplikatuko zaizkie. Maskara erabiltzea, eskuak aldiro garbitzea eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia gordetzea gomendatzen da.

**Hamaikagarrena.-** Erregistroa eta jendearentzako arreta.

Erregistroko eta jendearentzako arretako zerbitzu presentzialak berrezartzen dira, zerbitzu horiek telematikoki eta telefonoz ematen jarraitzea kendu gabe.

**Hamabigarrena.-** COVID-19an positibo suertatuz gero.

COVID-19an positibo diren edo positibo baten kontaktu estua diren langileak behartuta daude osasun-agintaritzak ezarritakoa betetzera: prebentzio neurriak 10 egunez (maskara erabiltzea beste pertsonekin egoten direnaldi guztietan, eskuak garbitzea eta harreman sozialak gutxitzea).

Horrek guztiak ez du ezertan eragotziko Osasun Zerbitzu Publikoak langilearen lan-egintzaren iragankorra deklaratzeko, betiere irizpide klinikotan oinarrituta. Kasu horretan, Parlamentuko Zerbitzu Orokorrei igorriko zaie.

**Hamahirugarrena.-** Indarra hartzea.

1. Plan honek onesten den egunean hartuko du indarra, eta indarrean segituko du Mahaiak erabakitzen duen arte.

2. Planean jasotzen diren langileria-arloko neurriak ez dira kontsolidagarriak; horrenbestez, ez dira eskuratutako eskubidetzat joko sor litezkeen egoerei dagokienez.

**Hamalagarrena.-** Indargabetzea.

Indargabetzen dira kontingentzia-plan honetan xedatutakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

## **Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusi José Luis Ezquerro Royo jauna kargutik kentzea.**

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 30.2 artikulua xedatzen du Nafarroako Kontuen Ganberaren lehendakariak askatasunez izendatu eta kargutik kenduko duela idazkari nagusia, Ganberako legelarien artetik. Gauza bera dio Kontuen Ganberaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduaren 4.3 artikulua.

Xedapen horiek kontuan hartuz, lehendakari honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuta,

EBAZTEN DU:

**Lehena.** Kargutik kentzea Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusi José Luis Ezquerro Royo jauna, eta emandako zerbitzuak eskertzea. Kargutik kentzeak ebazpen honen egunetik aurrera izanen ditu efektuak.

**Bigarrena.** Ebazpen hau José Luis Ezquerro Royo jaunari jakinaraztea, eta agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta erakundearen webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador

---

## **José Contreras López jauna Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusi izendatzea.**

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 30.2 artikulua xedatzen du Nafarroako Kontuen Ganberaren lehendakariak askatasunez izendatu eta kargutik kenduko duela idazkari nagusia, Ganberako legelarien artetik. Gauza bera dio Kontuen Ganberaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduaren 4.3 artikulua.

Xedapen horiek kontuan hartuz, lehendakari honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuta,

EBAZTEN DU:

**Lehena.** Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusi José Contreras López jauna izendatzea. Izendapenak ebazpen honen egunetik aurrera izanen ditu efektuak.

**Bigarrena.** Ebazpen hau José Contreras López jaunari jakinaraztea, eta agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta erakundearen webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador

## **Talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen 2021eko ekitaldiko urteko kontuak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak Mahaiaren eskura jartzen dute Nafarroako Parlamentuaren aurrekontuaren kargura 2021eko ekitaldian jasotako ordainsarien kontabilitatea. Horretarako aurkezten dituzte 2021eko ekitaldiaren urteko kontuen eredu laburtuak, barne hartzen dituztenak Balantzea, Emaizta-kontua eta Memoria.

Dokumentazioa aztertu ondoren, zeinari erantsen baitzaio, "Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko Arau"en 17. artikulua zehaztu bezala, Kontu-hartzailera eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egindako txosten teknikoa, eta aipatu arauetan xedatutakoaren arabera, hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea jakitun dagoela talde parlamentario bakoitzak eta foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Parlamentuaren aurrekontuaren kargura 2021eko ekitaldian jasotako ordainsarien berriazko kontabilitateaz, "Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko Arau"en 17. artikulua zehaztu bezala jasotakoak, eta horretarako onetsitako urteko kontuen eredu laburtuekin bat.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuaren webgune ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Balantzearen eta Emaizta-kontuaren koadro normalizatuak ere (2. eranskina), talde parlamentario bakoitzak eta foru parlamentarien elkarteak 2021eko ekitaldian jasotako ordainsarien kontabilitateari dagozkionak.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ALDIA: 2021

**EGOERA-BALANTZE LABURTUA**  
**NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOA**

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA	2021eko EKITALDIA	2020ko EKITALDIA
	<b>AKTIBOA</b>		
	<b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>		
30, 32, (39)	I. Izakinak	1.615,00 €	6.688,00 €
42,460, 464, 544, 581	II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	-	-
480,567	III. Epe laburreko ekintzak	-	-
570, 571, 580	IV. Diruzaintza	1.615,00 €	6.688,00 €
	<b>AKTIBOA, GUZTIRA (B)</b>	<b>1.615,00 €</b>	<b>6.688,00 €</b>
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>		
	<b>A) ONDARE GARBIA</b>		
	A-1) Sortutako ondarea		
120, (121)	I. Aurreko ekitaldietako soberakinak	308,00 €	503,00 €
129	I. Ekitaldiko soberakina	308,00 €	503,00 €
		503,00 €	5.204,00 €
		195,00 €	5.707,00 €
	<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>		
451, 51, 52, 56, 58	II. Epe laburreko zorrak	1.923,00 €	7.191,00 €
465.450.475.476.477	III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk	1.923,00 €	7.191,00 €
400,401,41	Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak		
485,568	Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak		
	IV. Epe laburreko ekintzak	1.923,00 €	7.191,00 €
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)</b>	<b>1.615,00 €</b>	<b>6.688,00 €</b>

ALDIA: 2021

**EMAITZA-KONTU LABURTUA**  
**NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOA**

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA	2021eko EKITALDIA	2020ko EKITALDIA
700.701.702.703.704	<b>DIRU-SARRERAK</b> 1. Jatorri publikoko diru-sarrerak a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak	916.308,00 € 916.308,00 €	916.308,00 € 916.308,00 €
	<b>A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)</b> <b>GASTUAK (negatiboan)</b>	<b>916.308,00 €</b>	<b>916.308,00 €</b>
(600)	2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2.e art.)	773.165,00 €	792.000,00 €
(640),(641),(642),(649)	3. Langile gastuak a) Soldatak eta lansariak b) Gizarte-zamak	- - -	- - -
(62),(639),(634),(694), (600),(602),	4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak a) Kanpoko zerbitzuak b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	142.948,00 142.948,00 - -	130.015,00 130.015,00 - -
	<b>B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)</b>	<b>916.113,00 €</b>	<b>922.015,00 €</b>
	<b>I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)</b>	<b>195,00 €</b>	<b>-</b>
760.761.762.768.769 (660),(662),(665),(668),(669)	6. Diru-sarrera finantzarioak 7. Gastu finantzarioak (negatiboan)	- -	- -
	<b>II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)</b>	-	-
	<b>III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)</b>	<b>195,00</b>	<b>-</b>
		<b>5.707,00</b>	<b>5.707,00</b>

ALDIA: 2021

## EGOERA-BALANTZE LABURTUA

## NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOA

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA	2021eko EKITALDIA	2020ko EKITALDIA
	<b>AKTIBOA</b>		
30, 32, (39)	<b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>	44,19 €	38,49 €
42,460, 464, 544, 581	I. Izakinak	-	-
480,567	II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	-	-
570, 571, 580	III. Epe laburreko ekintzak	-	-
	IV. Diruzaintza	44,19 €	38,49 €
	<b>AKTIBOA, GUZTIRA (B)</b>	<b>44,19 €</b>	<b>38,49 €</b>
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>		
120, (121)	<b>A) ONDARE GARBIA</b>	44,19 €	38,49 €
129	A-1) Sortutako ondarea	44,19 €	38,49 €
	I. Aurreko ekitaldietako soberakinak	38,49 €	76.749,90 €
	I. Ekitaldiko soberakina	5,70 €	76.711,41 €
	<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>	-	-
451, 51, 52, 56, 58	II. Epe laburreko zorrak	-	-
465.450.475.476.477	III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk	-	-
400,401,41	Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak	-	-
485,568	Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak	-	-
	IV. Epe laburreko ekintzak	-	-
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)</b>	<b>44,19 €</b>	<b>38,49 €</b>

ALDIA: 2021

EMAITZA-KONTU LABURTUA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOA

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA	2021eko EKITALDIA	2020ko EKITALDIA
	<b>DIRU-SARRERAK</b>		
700.701.702.703.704	1. Jatorri publikoko diru-sarrerak a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak	587.712,00 € 587.712,00 €	587.712,00 € 587.712,00 €
	<b>A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)</b>	<b>587.712,00 €</b>	<b>587.712,00 €</b>
	<b>GASTUAK (negatiboan)</b>		
(600)	2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2. e art.)	587.600,00 €	664.337,90 €
(640),(641),(642),(649)	3. Langile gastuak a) Soldatak eta lansariak b) Gizarte-zamak	- - -	- - -
(62),(639),(634),(694), (600),(602),	4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak a) Kanpoko zerbitzuak b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	106,30 106,30 - -	85,51 85,51 - -
	<b>B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)</b>	<b>587.706,30 €</b>	<b>664.423,41 €</b>
	<b>I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)</b>	<b>5,70 €</b>	<b>76.711,41 €</b>
760.761.762.768.769 (660),(662),(665),(668),(669)	6. Diru-sarrera finantzarioak 7. Gastu finantzarioak (negatiboan)	- -	- -
	<b>II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)</b>	-	-
	<b>III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)</b>	<b>5,70</b>	<b>76.711,41</b>

ALDIA: 2021

**EGOERA-BALANTZE LABURTUA**  
**GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOA**

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA	2021eko EKITALDIA	2020ko EKITALDIA
	<b>AKTIBOA</b>		
30, 32, (39)	B) AKTIBO KORRONTEA	237.958,00 €	79.383,00 €
42,460, 464, 544, 581	I. Izakinak	-	-
480,567	II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	-	-
570, 571, 580	III. Epe laburreko ekintzak	-	-
	IV. Diruzaintza	237.958,00 €	79.383,00 €
	<b>AKTIBOA, GUZTIRA (B)</b>	<b>237.958,00 €</b>	<b>79.383,00 €</b>
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>		
120, (121)	A) ONDARE GARBIA	1.441,00 €	725,00 €
129	A-1) Sortutako ondarea	1.441,00 €	725,00 €
	I. Aurreko ekitaldietako soberakinak	725,00 €	- €
	I. Ekitaldiko soberakina	716,00 €	725,00 €
	C) PASIBO KORRONTEA	236.517,00 €	78.658,00 €
451, 51, 52, 56, 58	II. Epe laburreko zorrak	236.517,00 €	78.658,00 €
465.450.475.476.477	III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontuak	-	-
400,401,41	Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak	-	-
485,568	Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak	-	-
	IV. Epe laburreko ekintzak	-	-
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)</b>	<b>237.958,00 €</b>	<b>79.383,00 €</b>



**EMAITZA-KONTU LABURTUA**  
**ALDIA: 2021**  
**GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOA**

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA	2021	2020
	<b>DIRU-SARRERAK</b>		
700.701.702.703.704	1. Jatorri publikoko diru-sarrerak a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak	475.752,00 € 475.752,00 €	475.752,00 € 475.752,00 €
	<b>A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)</b>	<b>475.752,00 €</b>	<b>475.752,00 €</b>
	<b>GASTUAK (negatiboan)</b>		
(600)	2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2. e art.)	475.000,00 €	475.027,00 €
(640),(641),(642),(649)	3. Langile gastuak a) Soldatak eta lansariak b) Gizarte-zamak	- - -	- - -
(62),(639),(634),(694),(600),(602)	4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak a) Kanpoko zerbitzuak b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	- - - -	- - - -
	<b>B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)</b>	<b>475.000,00 €</b>	<b>475.027,00 €</b>
	<b>I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)</b>	<b>752,00 €</b>	<b>725,00 €</b>
760.761.762.768.769	6. Diru-sarrera finantzarioak	36,00	-
(660),(662),(665),(668),(669)	7. Gastu finantzarioak (negatiboan)	-	-
	<b>II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
	<b>III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)</b>	<b>716,00 €</b>	<b>725,00 €</b>

ALDIA: 2021

**EGOERA-BALANTZE LABURTUA**  
**EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOA**

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA	2021eko EKITALDIA	2020ko EKITALDIA
	<b>AKTIBOA</b>		
	<b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>	31,52 €	78,50 €
30, 32, (39)	I. Izakinak	-	-
42,460, 464, 544, 581	II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	-	-
480,567	III. Epe laburreko ekintzak	-	-
570, 571, 580	IV. Diruzaintza	31,52 €	78,50 €
	<b>AKTIBO, GUZTIRA (B)</b>	<b>31,52 €</b>	<b>78,50 €</b>
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>		
	<b>A) ONDARE GARBIA</b>	31,52 €	78,50 €
120, (121)	A-1) Sortutako ondarea	31,52 €	78,50 €
129	I. Aurreko ekitaldietako soberakinak	78,50 €	-
	I. Ekitaldiko soberakina	-(46,98 €)	78,50 €
	<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>	-	-
451, 51, 52, 56, 58	II. Epe laburreko zorrak	-	-
465.450.475.476.477	III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontuak	-	-
	Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak		
400,401,41	Zerbitzu-emategatiko hartzekodunak	-	-
485,568	IV. Epe laburreko ekintzak	-	-
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBO, GUZTIRA (A+C)</b>	<b>31,52 €</b>	<b>78,50 €</b>

ALDIA: 2021

EMAITZA-KONTU LABURTUA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOA

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA	2021	2020
	<b>DIRU-SARRERAK</b>		
700.701.702.703.704	1. Jatorri publikoko diru-sarrerak a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak	413.856,00 € 413.856,00 €	412.910,36 € 412.910,36 €
	<b>A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)</b>	<b>413.856,00 €</b>	<b>412.910,36 €</b>
	<b>GASTUAK (negatiboan)</b>		
(600)	2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2.e art.)	413.017,02 €	412.032,76 €
(640),(641),(642),(649)	3. Langile gastuak a) Soldatak eta lansariak b) Gizarte-zamak	- - -	- - -
(62),(639),(634),(694), (600),(602),	4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak a) Kanpoko zerbitzuak b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	- - - -	- - - -
	<b>B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)</b>	<b>413.017,02 €</b>	<b>412.032,76 €</b>
	<b>I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)</b>	<b>838,98 €</b>	<b>877,60 €</b>
760.761.762.768.769 (660),(662),(665),(668),(669)	6. Diru-sarrera finantzarioak 7. Gastu finantzarioak (negatiboan)	- 885,96	- 799,10
	<b>II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)</b>	- 885,96	- 799,10
	<b>III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)</b>	- 46,98	78,50

ALDIA: 2021

## EGOERA-BALANTZE LABURTUA

## PODEMOS-AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEA

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA	2021eko EKITALDIA	2020ko EKITALDIA
	<b>AKTIBOA</b>		
30, 32, (39)	B) <b>AKTIBO KORRONTEA</b>	292,79 €	20.214,28 €
42,460, 464, 544, 581	I. Izakinak	-	-
480,567	II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	-	-
570, 571, 580	III. Epe laburreko ekintzak	-	-
	IV. Diruzaintza	292,79 €	20.214,28 €
	<b>AKTIBOA, GUZTIRA (B)</b>	<b>292,79 €</b>	<b>20.214,28 €</b>
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>		
120, (121)	A) <b>ONDARE GARBIA</b>	187,07 €	20.214,28 €
129	A-1) Sortutako ondarea	187,07 €	20.214,28 €
	I. Aurreko ekitaldietako soberakinak	20.214,28 €	2.116,66 €
	I. Ekitaldiko soberakina	-(20.027,21 €)	18.097,62 €
	C) <b>PASIBO KORRONTEA</b>	105,72 €	-
451, 51, 52, 56, 58	II. Epe laburreko zorrak	105,72 €	-
465.450.475.476.477	III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk	-	-
400,401,41	Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak		
485,568	Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak		
	IV. Epe laburreko ekintzak	-	-
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)</b>	<b>292,79 €</b>	<b>20.214,28 €</b>

ALDIA: 2021

## EMAITZA-KONTU LABURTUA

## PODEMOS-AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEA

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA	2021eko EKITALDIA	2020ko EKITALDIA
	<b>DIRU-SARRERAK</b>		
700.701.702.703.704	1. Jatorri publikoko diru-sarrerak a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak	209.052,00 € 209.052,00 €	209.052,00 € 209.052,00 €
	<b>A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)</b>	<b>209.052,00 €</b>	<b>209.052,00 €</b>
	<b>GASTUAK (negatiboan)</b>		
(600)	2. Entitate atxikien intsulaketa (8/2007 LO, 2.e art.)	226.473,00 €	189.794,82 €
(640),(641),(642),(649)	3. Langile gastuak a) Soldatak eta lansariak b) Gizarte-zamak	- -	- -
(62),(639),(634), (694), (600), (602),	4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak a) Kanpoko zerbitzuak b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	2.606,21 € 2.606,21 € - -	1.159,56 € 1.159,56 € - -
	<b>B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)</b>	<b>229.079,21 €</b>	<b>190.954,38 €</b>
	<b>I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)</b>	<b>-</b>	<b>18.097,62 €</b>
760.761.762.768.769 (660),(662),(665),(668),(669)	6. Diru-sarrera finantzarioak 7. Gastu finantzarioak (negatiboan)	- -	- -
	<b>II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
	<b>III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)</b>	<b>-</b>	<b>18.097,62</b>

2021

ALDIA:

## EGOERA-BALANTZE LABURTUA

## IZQUIERDA-EZKERRA TALDE MISTOA

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA	2021eko EKITALDIA	2020ko EKITALDIA
	<b>AKTIBOA</b>		
	<b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>	2.291,73 €	1.677,44 €
30, 32, (39)	I. Izakinak	-	-
42,460, 464, 544, 581	II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	-	-
480,567	III. Epe laburreko ekintzak	-	-
570, 571, 580	IV. Diruzaintza	2.291,73 €	1.677,44 €
	<b>AKTIBOA, GUZTIRA (B)</b>	<b>2.291,73 €</b>	<b>1.677,44 €</b>
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>		
	<b>A) ONDARE GARBIA</b>		
	A-1) Sortutako ondarea	2.291,73 €	1.677,44 €
120, (121)	I. Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.677,44 €	550,59 €
129	I. Ekitaldiko soberakina	614,29 €	1.126,85 €
	<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>		
451, 51, 52, 56, 58	II. Epe laburreko zorrak	-	-
465.450.475.476.477	III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk	-	-
400,401,41	Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak	-	-
485,568	Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak	-	-
	IV. Epe laburreko ekintzak	-	-
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)</b>	<b>2.291,73 €</b>	<b>1.677,44 €</b>

EMAITZA-KONTU LABURTUA		ALDIA:	2021
IZQUIERDA-EZKERRA TALDE MISTOA			

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA	2021eko EKITALDIA	2020ko EKITALDIA
	<b>DIRU-SARRERAK</b>		
700.701.702.703.704	1. Jatorri publikoko diru-sarrerak a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak	178.104,00 € 178.104,00 €	178.104,00 € 178.104,00 €
	<b>A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)</b>	<b>178.104,00 €</b>	<b>178.104,00 €</b>
	<b>GASTUAK (negatiboan)</b>		
(600)	2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2.e art.)	176.400,00 €	176.400,00 €
(640),(641),(642),(649)	3. Langile gastuak a) Soldatak eta lansariak b) Gizarte-zamak	- - -	- - -
(62),(639),(634),(694), (600),(602),	4. Funtzionamendu, antolamendu eta jardura arrunteko gastuak a) Kanpoko zerbitzuak b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	1.089,71 € - - 1.089,71 €	577,15 € 577,15 € - -
	<b>B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)</b>	<b>177.489,71 €</b>	<b>176.977,15 €</b>
	<b>I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)</b>	<b>614,29 €</b>	<b>1.126,85 €</b>
760.761.762.768.769 (660),(662),(665),(668),(669)	6. Diru-sarrera finantzarioak 7. Gastu finantzarioak (negatiboan)	- -	- -
	<b>II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)</b>	-	-
	<b>III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)</b>	<b>614,29 €</b>	<b>1.126,85 €</b>

